

ORAIN ETA BETI aldaketaren protagonistak



Genero-berdintasunaren eta
nesken eta emakumeen ahalduzaren alde

 **GARAPEN**
IRAUNKORRERAKO
HELBURUAK



Hezkuntza ez-formala. Haurrak 2019-2020 ikasturtea

SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Kanpaina honetan proposatzen diren jarduerekin, NBEk zehaztutako Garapen Iraunkorrerako Helburuak ezagutarazi nahi dira, eta, zehazki, bosgarrena: "Genero-berdintasuna eta emakumeen eta nesken ahalduzko lortzea". Helburu horren bidez, gure gaurko mundu honetan emakumeek eta neskek jasaten duten egoera bidegabe garrantzitsuenetakoari ahal dugun neurrian gizarte gisa konponbidea bilatzeko egin beharreko bidea seinalatu nahi da. Horrez gain, herritar aktiboak eta, kasu honetan, neska-mutil aktiboak bultzatuko dituen ikaskuntzarako baliabideak sortu nahi dira material hauekin, jasotzen duten informazioarekin eta gogoetatxo bat eginda, gizarte bidezkoago eta zuzenago baten alde beren ekintzak gauzatzeko gai izan daitezten.

HELBURU OROKORRA

Ikasleak sentsibilizatzea eta motibatzea, gaur egun oraindik emakumeek eta neskek mundu osoan bizi duten desoreka-egoerari aurre egiteko eta beren bizi-baldintzak hobetzeko nahiz desoreka hori arinduko duten neurri zehatzak lantzeko konpromisoa hartzeko.

HELBURU ESPEZIFIKOAK

- Munduan emakumeek bizi dituzten desorekak ezagutzea, batez ere genero-indarkeriari eta hezkuntzako eta lan-munduko arrakalei begira.
- Horrelako egoerak desagerrarazteko ekintzak garatu beharraz gogoeta egotea.
- Neska-mutilek abiaraz ditzaketen ekintza zehatz batzuk identifikatzea, eta horiekiko konpromisoa hartzea, banaka nahiz taldean, beren ingurune hurbilean horien berri emanez.

TENPORALIZAZIOA

Saio bat (ordu bat eta 20 minutukoa), edo bi saio (40 minutukoa).

BEHAR DEN MATERIALA

- Kartoi mehea
- Kola eta guraizeak
- Jostailu eta mozorroen katalogoa
- Arkatzak, errotuladoreak eta koloretako margoak
- Papera



METODOLOGIA

Hiru etapatan banatuta aurkeztuko da saioa, sustatu nahi den prozesuarekin lotutako hiru alderdi hauei erantzun ahal izateko: errealitateari buruzko informazioa aurkeztea, gogoeta sustatzea eta zerbait egitera bultzatzea..

0. JARDUERA. KANPAINAREN BIDEOA

AURREIKUSITAKO DENBORA: 20 minutu

Hasteko, ikasgelan giro lasaia sortzen saiatuko gara, eta ondoren egingo dugun horri arretaz erreparatzeko eskatuko zaie ikasleei.

Bideo bat ikusiko dugu, genero-rolari buruzko kontzeptuak, gero erabiliko direnak, azaltzen dituen: zertan jolasten diren neskak eta zertan mutilak, horrek baldintzatzen dituen, laneko eta hezkuntzako arrakala, eta berdintasuna. Begiak eta belarriak ondo irekita edukitzeko hobe dutela esango zaie, eta ahalik eta arreta handiena jartzeko eskatuko diegu.

Bideoa amaitzen dutenean, biribil batean ezarriko dira guztiak, elkar ikusteko moduan.

Horma-iruditarako paper bat ezarriko da horman, neska-mutil guztiek hitz baten bidez bideoan zerk eman dien atentzioa eta zergatik esan dezaten. Lehen ikasturteetan, txikienekin ari garenean, alegia (Haur Hezkuntza + 1.a eta 2.a), laguntza beharko dute agian adierazi nahi duten hori marrazteko, irudikatzeko edo idazteko (irakurtzeko eta idazteko duten mailaren arabera). Gainerako mailetan (3 eta 4. mailak, 5 eta 6. mailak), ikasleak beraiek irten daitezke beren ideiak azaltzera.

Garrantzitsua da jarduera dinamizatzen ari denak entzuteko jarrera, ideiak biltzekoa, hartzea, eta, areago, zenbait termino esanguratsu azaltzen hastea: genero-rolak, matxismoa, berdintasuna, diskriminazio edo bazterketa, estereotipoak edo sexismoa...

Horietako batzuk nahiko termino konplexuak direnez, goiko mailetan dabiltzan ikasleei eska diezaiekegu Interneten termino horien esanahia bilatzeko (Euskaltzaindiaren hiztegian, esaterako, edo beste hiztegiaren batean); gero, talde txikietan bilduta, elkarri azal diezazkiokete (banaka edo binaka, hitz bat bila dezakete, eta gero, ikaskideei azal diezaiokete).

Txikienekin ari garenean, termino horiek ulertarazteko, galderak egin diezazkiekegu, eta, txandaka, beraiek esan dezakete haien ustez zerk egiten dituen "desberdin" neskak eta mutilak (zer ikusten duten beren egunez egunekoan, ezer ikusten badute arlo horretan), edo ikusten ote duten desberdintasunik amak eta aitak egiten dituzten gauzen artean (etxean, lanean, etab.), edo aitona-amonen artean; ondoren, azal dakieke nola, batzuetan, kanpotik esaten zaigun zer den mutikoa izatea eta zer neskatoa izatea, eta nola jokatu "behar" genukeen edo nola jolas egin "behar" genukeen neska edo mutil izateagatik.



Adibide xume batzuk aurkitzen saiatuko gara, batik bat beheko mailatan. Bideoan ikusitakoa ere erabil daiteke azalpenak errazago emateko..

1. JARDUERA: ZERTAN JOLASTUKO GARA?

AURREIKUSITAKO DENBORA: 20 minutu

Dinamikari ekin aurretik, beren jostailurik gogokoena zein den galde diezaiekegu, eta txikiak jostailuen gunera joan daitezke (halakorik badute), beren gustukoa hartzera; gero, zergatik duten horren gustuko azaltzeko eskatuko zaie. Horrela, ikasleen arreta piztuko dugu, eta dinamikan parte hartzera bultzatuko ditugu.

Sarrera horren ostean, jarduerari helduko diogu. Lehenengo, talde txikiak egingo ditugu (2-4 lagunekoak). Garrantzitsua da elkarrekin ondo nahastuta osatzea taldeak. Jostailuen katalogo bat edo pare bat emango zaio talde bakoitzari; askotariko dendetako katalogoak edo sasoi desberdinetakoak zian daitezke: Gabonetakoak, udakoak, ikasturte hasierakoak, mozorro-dendak... Orri zuriak, kartoi meheak eta margoak ere emango zaizkie.

Nahiz eta jada zenbait jostailu-dendak konpromisoa hartu halakoak saihesteko, publizitate sexista egiten duten jostailu eta mozorroen katalogoak ikusten dira maiz oraindik, genero-estereotipoak sustatzen dituztenak nabarmen.

Katalogoak banatu ondoren (digitalak ere izan daitezke), ikasleei 10 minutuz begiratu eta aztertzeko eskatuko diegu. Justu aztertzen hastera doazenean, landu berri ditugun estereotipo eta genero-rol kontzeptuak gogoraraziko dizkiegu, orain adibideak errazago aurkitu ahal izango baitituzte eman zaizkien katalogoetan (mozorroen bidez neskei eta mutili esleitzen zaizkien lanak, urdinaren edo arrosaren erabilera, "etxeko" jostailuen erabilera, etab.).

Aztertzeko denbora pasatzen denean, eskatu ikasleei kartoi mehean bi zutabe bereizteko. Katalogoetan "neskentzat" edo "mutilentzat" soilik direla ematen duten jostailuen adibideak ebaki eta itsasteko eskatuko diegu. Azpian, beraien ustez zergatik ematen duen neskentzat edo mutilentzat soilik direla idazteko eskatuko zaie (jostailuaren kolorea edo orriarena, zertan ari diren jolasean orriotan neska-mutilak...).

Ondoren, galderak egingo zaizkie:

Zer iruditzen zaizue jostailuak horrela banatzea? Zer jostailu erosten dituzue zuek?

Esan dizuete inoiz inork zuek aukeratutako jostailua "neskena" edo "mutilena" dela? Hala ere erosi duzue? Uste duzue benetan badirela jostailu batzuk batzuentzat edo besteentzat soilik?

Aurkitu duzue bere itxuragatik neskei edo mutili esleitzen ez zaien jostailurik?

Jolas beretan jolastu gaitzke neskek eta mutilak?



(Amaitzeko, nahi dutena izan daitezkeela eta eska dezaketela jakinda, Olentzerori edo Errege Magoei gutuna idazteko eska dakieke, gaur ikasi duten guztia kontuan hartuta)

2. JARDUERA: NOR DA ZURE HEROIA?

AURREIKUSITAKO DENBORA: 20 minutu

Taldetan bilduko dira ikasleak, eta heroizat har daitezkeen gaur egungo pertsonaien edo pertsonaia historikoen bi adibide bilatuko dituzte; beren familiaren barnean ere bila ditzakete adibideok, edota errealak ez direnak ere hauta ditzakete, ipuin edo filmetakoak, kasurako. Gizonezkoak edo emakumezkoak izan daitezke. Egiaz, miresten dituzten pertsonaien adibideak bilatu behar dituzte, eta horrela ere azal diezaiekegu, beraz.

Gerora, taldeetan esan diren pertsonaien izenak idatziko dira arbelean, gizonezkoen eta emakumezkoen zutabeetan bereizita. Talde bakoitzeko bi kide irtengo dira aurrera. Batek izenak idatziko ditu, eta besteak zergatik aukeratu duten esango du, hitz baten bidez laburtuz (nabarmendu nahi duten ezaugarria). Galderak egingo zaizkie:

Zertan aritzen dira (lanbidea) pertsonaia horiek? Zer egiten dute? Horregatik aukeratu al duzue nagusiki?

Arlo berean aritzen dira aukeratu ditugun pertsonaiak (emakumeak eta gizonak)?

Zer alde daude?

Zer balio nabarmenduko zenituzke gizonengan? Eta emakumeengan? Zergatik?

Orain, geuregan pentsatuko dugu, eta handitzen garenean zer izan nahi genukeen pentsatuko dugu. Pertsonaia horiek bezalakoa izan nahiko dugu? Hala bada, zer izan nahi dugu?

Eta "gizon" edo "emakume" zarelako ezin zarela halakoa izan esango banizu? Gizonak eta emakumeak, mutilak eta neskak handiak garenean lan beretan jardun gaitzke?

Orrialde honetan, mekanikaria izan nahi duen neskato bati buruzko kontakizun labur bat duzu. Handiak direnean zer izan nahi duten pentsatzerakoan, ikasleak, batez ere txikiak, jolas horretan sarrarazteko erabil daiteke.

<https://www.unicef.org/peru/spanish/El-mundo-que-queremos-DOS-Version-Amigablepara-ninos.pdf>

Beste aukera bat ondoren adierazten den bideoa ikustea da. Berdintasunari, etxeko zereginak banatzeari eta gizonen eta emakumeen rola lotzen diren sexu estereotipoak zokoratzeari buruzkoa da. Ipuin klasiko bat hartu, eta beste molde batez kontatzen du:

https://www.youtube.com/watch?time_continue=5&v=suq_0NP_ObE



3. JARDUERA: GURE ETXE MORETIK

AURREIKUSITAKO DENBORA: 20 minutu

Aurreko ariketa egin ostean, gauza bera egiteko eskatuko diegu, baina beren familiengan eta, bereziki, familiako emakumeengan pentsatuz. Amonekin (eta birramonekin, bizirik badaude), amekin, izebekin eta ahizpa eta arrebekin pentsatuko dute.

Aurreko egunetan pixka bat prestatzea eskatzen du jarduera honek, baina nahiko erraza da. Besterik gabe, neska-mutilei zenbait egun lehenago (edo aurreko bileran) familiako kideekin hitz egiteko esan behar diegu, batez ere emakumeekin, nola bizi ziren lehen eta orain nola jakiteko, edota lehen zertan lan egiten zuten, eta zertan orain. Interesgarria litzateke bereziki adin handienekoekin hitz egitea, eta haurtzaroaz galdetzea: gazte edo ume zirela zer egin zezaketen eta zer ez, zertan jolasten ziren (neskak eta mutilak berdin, edo ez), zergatik ez ziren ibiltzen jolas batzuetan, zer ikasten zuten eskolan, etab.

Ikasgelan, taldeari azalduko dio bakoitzak zer egiten zuten bere familiako kideek. Gero, zenbait galdera egingo zaizkie parte-hartzaileei, gogoeta egin dezaten: lehengo emakumeek eta oraingoek gauza berak egiten dituzte? Zer aldatu da gehien, zuen ustez? Kontatu dizueten ezerk harritu al zaituzte? Zergatik? Badugu oraindik aldatu beharreko ezer?

Ikasleak belaunaldiz belaunaldi emakumeen inguruabarrak eta bizitza nola aldatu diren kontura daitezen lortuko dugu: duela gutxi, emakumeek ezin zituzten egin gaur egun egiten dituzten gauza asko, aldaketak izan dira emakumeen eskubideetan ere, etab. Ziurrenik, harritu egingo dira horietako aldaketa askoren berri izaten dutenean.

Amaitzeko, marrazki bat egingo dugu: ikasle bakoitzak bere etxea marraztuko du. Kanpainako kartela erakuts diezaiekegu, emakume bakoitza mundua marraztean zerbaitean ari dela erakusten duena. Esango diegu gela bakoitzean marrazki bat, hitz bat edo esaldi bat ezarri behar dutela, eta gaur egindakoaren adierazgarri izan behar duela egiten duten horrek (guztiok edozer ikas dezakegu, parekoak gara lanean, etxeko lanak guztion artean egiten ditugu, jolas bat "mutilena" edo "neskena" dela esango diguten beldurrik gabe jolas gaitezke, etab.). Marrazki eta esaldi horiek etxera eramango dituzte, eta familiei erakutsiko dizkiete. Hartuko duten konpromisoaren erakusgarri izango dira.



JARDUERAREN EBALUAZIOA (AUKERAKOA)

Jarduera ebaluatu nahi bada, ikasleen parte-hartzeari eta inplikazioari erreparatzea proposatzen dugu, hiru item hauetatik abiatuta:

ITEMAK	Bikain	Oso ondo	Ondo	Nahikoa	Gutxiegia
Jokabide egokia izan al du bai banaka ari zenean eta bai talde-lanean?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Interesik erakutsi al du jardueretan?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Parte hartu al du jardueretan?	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

